



Euskal Herriko zazpi herrialdeetako sagardogile elkarteek eta administrazioek Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren aldeko apustua egin dute.

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak muga guztiak gaindituko ditu

'Euskal Sagardoa/Sidra del País Vasco, Cidre du País Basque/Euskal Sagarnoa' izango da mugaz gaindiko Jatorri Deituraren izena. Bruselako oniritzia jaso ondoren, Nafarroako sektorea gehituko da jatorri izendapenera.

Euskal Sagardoa Jatorri Deitura duela sei urte sortu zen eta aurrean urrats esanguratsu bat emango du. Zuberoko, Behe Nafarroako eta Lapurdiko sagar eta sagardogileek Jatorri Deiturako kide izateko borondatea agertu dute. Dagoeneko, izena partekatzen dute eta baita sagardoa bera ere.

Azkenaldian ordea, Pirinioetako bi aldeetako sektoreak proposamen bat lantzen aritu dira, INAO (Frantziako Jatorri eta Kalitatearen Institutu Nazionala) eta HAZI-ko teknikarientz laguntzarekin. Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herria Hirigune Elkargoaren koordinazioa eta babes berea ere jaso dute. Behin akordioa lortuta, Frantziako eta Espainiako Ministerioei helarazi zaie

proposamena eta hauek prozedimendua martxan jarri dute, herrialde bakoitzeko tramitazioak pasa eta Europar Batasunerako bidaltzeko.

Lehen Europa

Baimen administratibo guztiak jaso ondoren, jatorri deituraren izapidetza Bruselarekin ixtear da. Euskal Sagardoaren sektoreko ordezkariak aditzera eman dutenez, "Europa ez dago mugaz gaindiko araudi bakarreko bestelako Jatorri Deiturarik eta hau izango da ezaugarri honekin jaioko den lehen".

Honen guztiaren berri emateko, agerraldi bat egin zuten aurreko astean Donostian. Bertan izan ziren Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiararen Garapen, Jasanga-

rritasun eta Ingurumen sailburua; Joseba Erramundeguy Euskal Herria Hirigune Elkargoko kontseilaria; Jose María Aierdi Nafarroako Landa Garapen eta Ingurumen sailburua, Unai Agirre Euskal Sagardoa jatorri izendapenerako zuzendaria eta Bixintxo Aphaul Domaine Bordatto-ko sagardogilea.

Mugaren bi aldeetako sagar motak ere Jatorri Deituran sartzea adostu da araudi bakarren barruan.

**"EUROPA OSOAN
HAU IZANGO DA
MUGAZ GAINDIKO
LEHEN JATORRI
DEITURA"**

Nafarroa ere batzekoa da

Pirinioetako mugaz gaindiko Jatorri Deitura duen lehen enbriaria izango da Euskal Sagardoa. Araudi berdina izateaz gain, kudeaketa eta zertifikazioa ere bateratuta egitea adostu dute eta horretarako HAZI-ko Kontrol eta Zertifikazio arloa dagoeneko hasia da. INAOrekin harremanetan Frantzia ere homologatua izateko eta Jatorri Izendapenera zertifikazioa HAZI-ko egin dezan.

Bestalde, Bruselako oniritzia jaso bezain pronto Nafarroako sektorea Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako kide izatera pasako da. Nafarroako sagar eta sagardogileak ere Euskal Sagardoan sartzeko prozedurari heltzeko konpromisoa hartu dute Kontseilu Arautzaileak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak.